

Sasoi Eraikuntzaken politika

Sasoi Eraikuntzak 1996an sortutako enpresa da eta obra zibil eta eraikuntzaren alorrean aritzen da. Enpresaren helburua da ahal den lehiakortasun handiena lortzea, gure bezeroen asebetetzea bermatuz, ingurumenaren eta osasunaren babesa eta gure langileen segurtasuna eta ongizatea sustatuz.

Gure jarduera Malerreka eskualdean kokatzen da eta eskualde honekiko erakutsi dugun konpromisoak enplegu iturri garrantzitsua izatera eraman gaitu, baita ere laguntza ematera gure eskualdearen garapenean, beti ere gure ingurunearen eta gure jendearen ezagutza eta errespetutik abiatuta.

Horregatik, eta garapen prozesu konstante bat jarraituz, ondoko konpromisoak zehaztu ditugu:

- Gure bezeroen eta interes-taldeen beharrak eta eskakizunak aurreikusitako epean betetzen direla ziurtatzea.
- Aplikatu beharreko legezko betebeharrak guztiak betetzea.
- Erakundearen prozesuen etengabeko hobekuntza, enpresaren kalitatea kudeatzeko sistemaren etengabeko hobekuntzarekin hasten da.
- Norberaren eta besteen baliabideak zentzuz erabiltzea.

Politika hau Sasoi Eraikuntzakeko langile guztiek hartu behar dute beren gain. Kalitatea eta etengabeko hobekuntza lortzeko helburuak ezarri eta berrikusteko esparru gisa balio du.

Sasoi Eraikuntzak enpresaren izaeraren beste alderdi estrategiko batzuk:

MISIOA: SASOI ERAIKUNTZAK enpresaren xedea da, eraikuntza eta lur mugimenduetan lan egiten duen eraikuntza-enpresa eta sustatzaile jasangarria izatea. Enpresa Sunbillan dago eta bere jarduera eremuak Euskal Herri osoa hartzen du. Langileek ezagutza, balioaniztasun eta profesionaltasun handia dute, eta horrek, makineria propioa edukitzearekin batera, administrazio publikoentzat, enpresentzat eta partikularrentzat garrantzi handiko lanak egiteko aukera ematen digu, bitarteko eta eraikuntza-irtenbide onenak eskainiz.

BISIOA: enpresaren jarduera-eremua ekonomikoki eta sozialki indartuko duen eraikuntza-enpresa eta sustatzaile iraunkor gisa finkatzea, eta Euskal Herri osoan, baina bereziki Nafarroan, gure merkatu-hobia handitzea.

Sunbillan, 2019ko martxoak 20-a



Pello Etxegia Telletxea
Zuzendaria orokorra